

# PASEOA HIRU HONDARTZETAN

An aerial photograph of Hondartza beach and bay in San Sebastián, Spain. The bay is filled with numerous small boats, and the water transitions from deep blue to light turquoise near the sandy beach. The surrounding town is visible with its characteristic red-tiled roofs, and the background features rolling green hills and mountains under a blue sky with scattered clouds. The text 'PASEOA HIRU HONDARTZETAN' is overlaid in large, white, bold, sans-serif capital letters across the upper portion of the image.

## PASEOA **DONOSTIAKO HIRU HONDARTZETAN**

Donostian, badugu paseo bat, gure hiriko hiru hondartza nagusiak zeharkatzen dituena: Zurriola, Kontxa eta Ondarreta. Ia sei kilometro luzeko ibilaldi bat da. Hasi Saguesetik, eta Haizearen Orraziraino iristen da; Pasealeku Berritik barrena igaroko gara, baita Kontxako badiatik ere, gure hiriaren nortasun-ikur bihurtu den baranda zuri bereizgarriaren albotik.

### P1



Gros auzoko hondartzak Zurriola du izena. Hantxe ibiltzen da olatu gehien, eta bertako korronteeek toki paregabe bihurtzen dute surfearn edo bodyboardean aritzeko.

Ez dira hainbeste urte Gros auzoa eraikitzen hasi zirela: XIX. mendearen amaieran. Tomas Gros izeneko gizon baten areatzen gainean eraiki zuten auzoa, eta horregatik hartu du izen hori.

Hori horrela, kostaldean txaletak eta jauregiak eraiki zituzten; auzoaren barruan, berriz, lantegiak eta 1973ra arte egon zen Txofreko zezen-plaza. Sagues ingurua Francisco Sagüések eraiki zuen, Groseko zabalgunea eraikitzen ziharduten langileek ostatua izan zezaten.

### P2



Paseo ikusgarri horrek Urgull mendia inguratzen du, eta sekulakoa da olatuek nola talka egiten duten ikustea.

#### **Gehiago jakiteko: marea biziak**

Inoiz entzun duzu iraileko marea biziak hitz egiten? Itsasoak basatiagoa eta arriskutsuagoa ematen du marea biziak direnean: gogor jotzen du kostaldean eta, bereziki, Pasealeku Berrian.

Marea bizi gogorrenak ekinozioekin batera gertatzen dira (martxoaren 21ean eta irailaren 21ean), egunak eta gauak iraupen bera dutenean.

Gure kostaldean, itsasoaren gainazaleko geruza, lehen 50-100 metroez osatua, beroago egoten da irailean, uda amaitzen denean, martxoan baino (neguaren amaieran). Horregatik izaten dira biziagoak iraileko mareak.

PASEOA **DONOSTIAKO HIRU HONDARTZETAN****P3**

⋮

**PORTUA**

Paseatzeko leku ederra izateaz gainera, portua historiaz betetako eremu bat da, itsas merkataritza eta arrantza oso garrantzitsuak izan baitira beti gure hirian. Eta jende askok ez dakien arren, Jarana edo festa-auzo gisa ezagutzen da.

Badira gure portua bakar egiten duten zenbait berezitasun:

- Handik irteten dira uhartera doazen itsasontziak, bai eta badian buelta bat ematen duen katamaran bat ere. Bide batez, ez badakizu, debekatuta dago portuan igeri egitea, oso arriskutsua baita.
- Iraileko estropadetako arraunlariak iristen diren puntu zirrargarria da, eta hantxe hasten da Kontxako Banderaren festa.
- Bertan, saregileak ere aritzen dira; hau da, arrantza-ontzietako sare

handiak konpontzen dituzten emakumeak.

XV. mendearen aurretik, Donostiako portuak ez zuen kairik, eta badia osoa balliatzen zuten ainguratzeko. Ideia bat izan dezazun, Kontxako hondarretan egiten zituzten zamalanak.

XVI. mendean, obra bat egin zuten sarrera babestuta gera zedin, eta kanpoko kaia eraiki zen.

Ziurrenik jende askok ez du jakingo, baina XVII. mendean munduko balea-gunerik garrantzitsuenaren izenaren jatorria Donostian dago, eta kortsario-portu nagusietako bat ere bai.

**Hegazkin-ontzia - Kofradia**

Donostiarrek «hegazkin-ontzi» deitzen dioten eraikina 1943koa da, eta arrantzaleen lonja eta kofradia daude bertan (kofradia arrantzaleen etxea da).

Harresiaren itsasoko ateari Portaletas ere deitzen zaio. Hiria harresiz inguratutik zegoenean, huraxe zen sarrera nagusietako bat.



## P4

PASEOA **DONOSTIAKO HIRU HONDARTZETAN**
**ALDERDI  
EDERREKO  
LORATEGIAK**

Ziurrenik hiriko lorategi ezagunenak izango dira, eta seguru makina bat aldiz igaroko zinela haietatik. Haurrentzako parkea eta karrusela izateagatik ez ezik, zuhaitz bereizgarriak dituztelako ere badira ezagunak: tamarizak. Zuhaitz horiek enbor bihurrituak, adar malguak eta arrosa kolore zurbileko loreak izaten dituzte.

Lorategien muturrean, ia Askatasunaren Etorbidean, Cervantes plaza dago, On Kixote eta Antsoren eskultura batekin. Bitxia da; izan ere, prototipo bat da eskultura hori. Eskultura berdin bat egiteko baliatu zuten, baina askoz handiagoa, zeina Madrilgo Espainiako Plazan baitago.

**Historia**

Harresiak eraitsi ondoren, eremu hori militarren maniobra-eremua izan zen, harik eta Donostiako Udalak lurra erosi eta parkea eraiki zuen arte. Jolas eta aisialdirako leku bat izatea nahi zuten, beraz, zirku bat, belodromo bat eta txotxongilo-antzoki bat jarri zituzten. Hala

ere, Kasino Handia eraiki zenean (gaur egungo udaletxea) inguru osoa eraberritu zuten, eta lorategi moduan utzi zituzten.

**Su artifizialak**

Lorategi horietatik botatzen dira Aste Nagusiko su artifizialak. Jaialdi hori Canneskoaren ondotik sortu zen 1964an, eta harrezkero kontinente guztietako pirotek-nia-etxeek argitu dute gure hiriko zerua.

Sodio gramo batzuek kolore horia ematen dute, eta barioak, berriz, berdea; estrontzioa gorria lortzeko baliatzen da, baina, arrosa-kolorea nahi denean, litioa aukeratzen da. Kaltzioak, aldiz, zuria ematen du. Halaxe lortzen da Aste Nagusian gauero-gauero zervan ikusten dugun ikuskizuna.



PASEOA **DONOSTIAKO HIRU HONDARTZETAN****P5**
**KONTXAKO  
HONDARTZA**

Hain hondartza polita izaki, horixe da Donostia nazioartean ezagutzeko arrazoi nabarmenenetako bat.

Kontxako hondartzaren ikuspegiak ikusgarriak dira, pasealekutik, itsasotik, uhartetik... Horrexegatik deitzen zaio Kantauriko perla. Kontxako hondartza hiriaren erdigunean dago, eta horregatik da hain gertukoa guztiontzat.

Badiako urak lasaiak dira, sakonera txikikoak. Udako hilabeteetan, gabarroi deituriko egitura batzuk jartzen dira: txirristak eta tranpolinak izaten dituzte itsasoan, eta igerian irits gaitzke haietara. Gainera, pasealekuaren azpiko hegalean liburutegi publiko bat dago.





## P6

## PASEOA DONOSTIAKO HIRU HONDARTZETAN


KONTXAKO  
PASEALEKUA

Pasealeku horrek Kontxako badia inguratzen du mutur batetik besteraino. Bertan, hiriko sinbolorik handiena topatuko dugu: ehun urte beteak dituen baranda.

XIX. mendearen amaieran, Donostia hainbat arrazoiengatik aukeratu zuten errege-erreginek uda pasatzeko.

1. Penintsula iparraldea ezin hobea zen itsas bainuak hartzeko.
2. Gertu zegoen Biarritzetik, hura baitzen Europako errege-erreginen udako jomuga.

Trena iritsi zenean, Donostia bainuetxe ospetsu bihurtu zen Europa osoan. Madril-Paris trenbidea, besteak beste, Mandasko dukeari esker inauguratu zen, eta benetan aldatu zen gure historia. Ordura arte, Madrilera iristeko 56 ordu behar izaten ziren, eta, garraio bide berriari esker, 17 ordu «bakarrik».

**Baranda**

Kontxako baranda zuri dotore eta berezia Juan Rafael Alday arkitektoak sortu zuen 1916an.

Bitxikeria bat da tarte batean alderantziz jarrita dagoela, eta loreak Kontxako hondartzara ematen duela, pasealekura begira egon beharrean. Ez dakigu baten batek huts egin zuen edo nahita ipini zuten, baina, egia esan, hortxe jarraitzen du, erlojuen inguruan. Gai zara aurkitzeko?

A! Eta pasealekuaren erdi-pareko zati batean, beste diseinu bat du barandak. Badakizu zergatik? Bada, eremu hori garai bateko Errege Aldagelaren inguruan dagoelako dauka bere diseinu propioa.

**Hondartzara jaisteko arrapalak**

Bazenekien...? Alderdi Ederren amaieraren eta Cervantes plazaren artean dago hondartzara jaisteko lehenbiziko arrapala. Ikusgarriak dira bertako bi farola bikainak. Zinemaldiak banatzen dituen sariak kale-argi horien erreplikak dira.

Bigarren arrapala handiak, berriz, obelisko handiak ditu alde banatan, barometroa eta erlojua. «Erlojuen ingurua» deitzen zaio toki horri.

## PASEOA **DONOSTIAKO HIRU HONDARTZETAN**

### La Perla

Itsas urezko bainuetxe hori 1912an eraiki zen, eta garai hartako ederrenetakotzat jotzen zen.

Kontxako hondartzari

«errege-erreginen» hondartza titulua eman ziotenean, egurrezko eraikin handi bat sortu zuten: «La Perla del Océano» edo

«El Perlón».

Urte batzuk geroago, harrizko eraikin berriak ordeztu zuten: kabinak, dantzalekuak, jatetxea, kafetegia eta balkoi luzeak zituen, eguzkitatik babestuta eseri ahal izateko, Kontxako badia miretsiz.

Gaur egun talasoterapia-zentro bat da, itsasoko ura duen bainuetxea.



### Errege Aldagela

Alfontso XIII.ak errege-aldagela bat eraikitzeko agindua eman zuen 1894an, erregina inork ikusi gabe sar zedin uretan; udako denboraldia hasten zenean muntatzen zuten, eta errail batzuk zituen erregina uretaraino hurbiltzeko, lurrunezko motor baten bidez mugituz.

Urte batzuk geroago, Donostiako Udalak errege-erreginentzako harrizko eraikin bat eraikitzea erabaki zuen. Eraikin hark, lehen esan dizugun bezala, baranda-diseinu propioa du.

### Omenaldia Flemingi eta Bigarren Mendeurreneko Begiratokia

Eduardo Chillidak eskulturak eskaini zizkien miresten zituen pertsona nabarmenei, eta horien artean zegoen Alexander Fleming, penizilina aurkitu zuen bakteriologoa.

Chillidak Udalaren enkarguz egin zuen obra horren originala. Eskultura horrek kokaleku ugari izan zituen (Ategorrietan, Jai Alain eta Torax ospitalean egon zen, besteak beste). Orain behin betiko kokapenean aurkitzen dugu, Kontxako pasealekuan.

Begiratoki horri Bigarren Mendeurreneko Begiratokia deitzen zaio 2013tik, orduan aldatu baitziztaion izena, gure hiria erre eta berreraiki zeneko 200. urteurrena omentz

aniversario de la quema y reconstrucción de nuestra ciudad.

PASEOA **DONOSTIAKO HIRU HONDARTZETAN****P7**

⋮

**ONDARRETA  
HONDARTZA**

Antiguo auzoko hondartza Loretopean hasten da, Miramar jauregiaren azpian, eta Haizearen Orraziraino iristen da, Tenis Klubetik igarota. Hiriko hondartzarik familiarrena da, itsasaldiek ez baitigute bainua mugatzen eta haurrentzako parke bat baitu hondarretan bertan. Gainera, kirola egin dezakezu bertan: kanoak alokatu, hondartza-boleia, pala edo futbola. Hondartza inguratuz, Ondarretako Lorategiak daude eta, lore eta zuhaitzen artean, tamaina handiko bi eskultura nabarmentzen dira. Lehenengoa Udalak eta auzoko bizilagunek Maria Kristina Austriakoa erreginari eskainitako eskultura da.

Bigarrena, hondartzaren ondoan dagoena, Zeharki izeneko obra moderno bat da, Juan Ramón Anda artistak sortua.

**Zer zegoen lehenago Antiguo auzoan?**

XIX. mendearen erdialdean, Antiguo urrun zegoen erdigunetik, eta tailerrak, lantegiak eta langileentzako ostatuak zeuden bertan. Benta Berri aldean, El León garagardo-fabrika ezagunak zeuden, Suchard eta Lizarriturkyko bonboi eta txokolate-lantegiak, bai eta Lagarto xaboi-fabrika ere. Baina are harrigarriagoa da maniobra militarren eremu bat eta espetxearen eraikina zeudela Ondarretako hondartzan.



PASEOA **DONOSTIAKO HIRU HONDARTZETAN****P8**
**SANTA  
KLARA  
UHARTEA**

Igerian irits daitekeen arren, sarri-sari irteten dira uharteko txalupa motordunak hara joateko. Bertan, bidezidorrak arakatu, merenderoan piknik bat egin, itsasargira igo edo Donostiako laugarren hondartza bezala ezagutzen dugunaz goza dezakegu —hain hondartza txikia da, ezen desagertu egiten baita marea igotzen denean—.

San Frantzisko Asiskoak 1220an bisitatu zuen uhartea, eta bisita hartan hoztu egin zen. Oso gaixo egon zen, eta sei astez hartu behar izan zuen atseden, garai hartako monasterioan, gaur egun Miramar jauregia dagoen lekuan.

Bisita horretan, Frantzisko Asiskoak ermita uhartearen goialdean berreraikitzea erabaki zuen, eta halaxe egin zuen. Chiara Sciffi Frantzisko Asiskoaren kolaboratzailea zen, eta berarekin bidaiatzen zuen. Urte batzuk geroago, Chiara Sciffi santa bihurtu zenean, uharteari Santa Klara deitzea erabaki zen. Ermita zaharra berreraiki egin zen, eta gaur egun itsasargi gisa ezagutzen dugu.

